

# begira



32. zk.  
2014ko abendua



 **ULMA**

Elkarrizketa Iñaki Medinari.  
ULMA Pipingeko  
lehendakaria

ULMA Orga Jasotzaileak  
etxeak Mitsubishien  
azken erronka handia  
aurkeztu du: EDiA EX  
berria

## 41 Etxebizitza Berri Anantapurren

ULMA Fundazioaren eta Vicente Ferrerren arteko  
Lankidetzaren proiektua



ALBISTE  
ULMA Agricolaren  
instalatu

ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
**Txinan haragiaren sektorean  
diharduen Shuangui erraldoiak**  
ULMA Packagingen **soluzio oso bat**  
eskuratu du.



ALBISTE OSASUNGARRIAK.  
ULMA Taldean **estanolek**  
**kolesterola murrizteko duten**  
**eraginkortasunari** buruzko azterketa  
egin da.



**KOLABORATZAILE TALDEA:**

Nora Altube, Joseba Alberdi,  
Ana Da Costa, María Sendín,  
Irene Moreno, Edurne Unzueta,  
Romu Arteché eta Karlos Alzola.

**Argitaratzailea:**

Grupo ULMA S. Coop.,  
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.  
20560 OÑATI.

**Tel.:** 943 25 03 00

**Faxa;** 943 78 09 17.

**e-maila:** begira@ulma.com.

**Diseinua eta maketazioa:**

Marka, Komunikazio eta EES Arloa.

**Inprimategia** Gertu S. L.

**Euskarazko itzulpenak:** EMUN Koop.E.



Paper ekologikoa



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
**G12 berotegi berria**  
 egin da **Mexikon ere bai.**



ALBISTEAK ETA GAURKOTASUNA.  
**ULMA Eraikuntzak Euskararen Zilarrezko Bikain** Kalitate **Ziurtagiria lortu du**, Eusko Jaurlaritzaren eskutik.



ULMA FUNDAZIOA.  
**ULMA Taldeak lankidetzan dihardu** Vicente Ferrer Fundazioarekin **etxebizitza berriak eraikitzeko.**



2014ko abendua

4 albisteak eta gaurkotasuna  
 Sareta artekatua Plaza Mayor merkataritza gunean, Leon, Mexiko.

ULMA Conveyor Components.  
 Vattenfall Alemania homologatuta.

ULMA Handling Systemsek ekipajeak tratatzeko proiektuak garatuko ditu Etiopiako 5 aireportutan.

ULMA Pipingeko langileek Gasa Prozesatzeko planta bat bisitatu dute Saudi Arabian.

14 aurrez aurre  
 Iñaki Medina. ULMA Pipingeko lehendakaria.

16 erreportajea  
 ULMA Taldearen Gestio Sozialaren Arloa.

18 ULMA fundazioa  
 ULMA Taldeak lankidetzan dihardu Vicente Ferrer Fundazioarekin etxebizitza berriak eraikitzeko.

20 albiste osasungarriak  
 ULMA Taldean estanoiek kolesterola murrizteko duten eraginkortasunari buruzko azterketa egin da.

21 agenda eta iradokizunak



## ULMA HANDLING SYSTEMS

# ULMA Handling Systemsek ekipajeak tratatzeko proiektuak garatuko ditu Etiopiako 5 aireportutan

Etiopiako aireportuak esleitzeko prozesuak ULMA Handling Systemsen alde egin du ekipajeak tratatzeko garatuko diren proiektuak diseinatu, instalatu eta martxan jartzeko, Gambella, Jimma, Bahir Dar, Jijiga eta Asosako aireportuetan.

Proiekturik garrantzitsuen Etiopiako ipar-mendebaldean dagoen eta Amhara eskualde administratiboko hiriburua den Bahir Dar hiriko aireporturako egingo da. Aireportu horrek irteeratarako sistema bat izango du, eta horren osagaiak izango dira hamar erakusmahai, ikuskapenerako bi sistema, bi karrusel eta heldueretarako sistema bat, bi karrusel lauz osatua.

Gainerako proiektuetan irteeratarako sistema bat garatuko da, eta horren osagaiak izango dira bost erakusmahai, ikuskapenerako sistema integratuak dituztenak, karrusel bat eta heldueretarako sistema bat, karrusel lau batez osatua.

Gaur egun, Etiopia aireportuak berritzeko plan batean sartuta dago, eta bost proiektu horien esleipena Etiopiako gobernuak sortutako plan baten lehen fasean sartzen da, aireportuetako azpiegituren sarea hobetzeko; guztira 21 aireportu berrituko dira.

Zalantzarik gabe, proiektua mugarri garrantzitsua da bai Etiopiarentzat bai ULMA Handling Systemsentzat, gure ingeniariak Afrikako lurraldean egingo dituen lehen proiektuak baitira.



## ULMA TALDEA

# ULMA Taldeak Oñatiko txanpon sozialaren ekimena babestu du

## "TXANTXI", OÑATIN BERTAKO EKONOMIA ETA DENDAK BULTZATZEKO TXANPON SOZIAL BERRIA

Txantxi txanpon sozial berria urriaz gerotik dago martxan, Oñatiko merkataritzaren sektoreak eta Udalak elkarrekin garatutako lanaren emaitza da, eta helburu bakarra dauka: bertako ekonomia eta merkataritza bultzatzea.

Ekimena Merkataritza Biziberritzeko Planaren barruan kokatzen da, eta Oñatin dauden 90 establezimendu baino gehiagoren eskaintza bertako biztanleei zein herrian dauden enpresetara joan ohi diren langileei hurbildu nahi die.

Ildo horretan, Txantxi Oñatiko txanpon sozialaren diseinua hau da: 50 zentimo, euro bat, bost euro eta hogei euroko bost billete izango ditu, Oñatin aski ezagunak diren gune naturalak erakusten dituztenak, hala nola Aitzulo haitzuloa, Usako presa, Aloña mendia, Iturrigorri basoa eta hainbat baserri; horrez gain, Oñatiko armarría eta igel edo "txantxiaren" hatzaren marka, oñatiarrei esaten zaien goitizena erabilita.

Aurkezpenean adierazi zuten, txanpona estanpatzeko erabilitako baliabide grafikoak ezagunak eta

hurbilekoak dira, erabiltzaileei ekimena propio moduan barneratzen laguntzeko, eta naturaren benetako altxorak erabili dira, "merkataritzak eta ostalaritzak bezala, herriaren bizitza aberasten dutelarik, zaintzea eta babestea merezi baitute".

Finan, ekimen honen arrakastarako ezinbestekoa da gizarteko eragile guztien parte hartzea eta konpromisoa lortzea. Ildo horretan, ULMA Taldeko langileek eta bazkideek ekimenarekin bat egin nahi izan dute, ULMA Taldeak bere hondar alea jartzeko eta Oñatiko txanpon soziala finkatzea lortzeko ideiak emanaz. Jasotako proposamenen artean lansariaren zati bat Txantxitan jasotzeko aukera dago, borondatezkoa, edo ULMA Taldeak bazkide edo langile bakoitzak bere kabuz eskuratzen dituen Txantxiaren zati bat diruz laguntzeko aukera. Horiek dira ULMA Pipingeko Xabier Igartuaren ideietako batzuk, eta bere proposamenen kalitatearen sari gisa, txanpon soziala osatzen duten billete guztiak jaso zituen, hau da, 36,50 Txantxi guztira.

## ULMA PIPING

# ULMA Pipingeko langileek Gasa Prozesatzeko planta bat bisitatu dute lehendabizikoz Saudi Arabian



Apirilean gasa prozesatzeko planta bat ikusteko aukera izan genuen lehenengo aldiz Saudi Arabian.

Bisitaren arrazoia, nagusiki, briden torlojuak lotzeko teknika egokiari buruzko ikastaro bat ematea zen, torlojuak askatzen direlako gerta daitezkeen gas ihesak ekiditeko.

Proiektua Koreako ingeniariatza batek egindakoa da eta, funtsean, gasa erauzi eta fintzeko gaitasuna areagotzea du helburu, herrialdeko gas eskariari erantzuteko eta, etorkizunean, gas likidotuaren esportatzeko. Bisita egiteko arrazoiak izan ziren ingeniariak bridak elkartzeko beharrezkoak diren ekipamendu elektrikoak erosteko premiari erantzutea eta plantaren

eraikuntzan esku hartzen ari diren azpikontratei ekipamendu horien funtzionamenduei buruz behar duten prestakuntza ematea.

Proiektua Arabiako basamortuan, Arabiar Emirerrietako mugatik hurbil, dagoeneko badagoen gas naturalaren hobitik gasa erauzi, bereizi, konprimitu eta garraiatzeko lanen programaren zati bat da. Horretarako beharrezkoa da planta berriak eraikitzea eta jada existitzen diren batzuk handitzea, hainbat paketen. ULMAren bridekin egingo den proiektu hau Begirako aurreko zenbakietan eman zen ezagutzera, eta dauden lau GOSPak (Gas Oil Separation Plant) handitzeko lanak hartzen ditu bere baitan. ULMA Pipingek bridak lau GOSP plantetako

hainbat sektoretan joango dira instalatuta.

Proiektu aitzindari honek jauzi kualitatibo handia ekarri du EPC dibisiorako, baita erronka handia ere ULMA Pipingeko maila guztietan. Pieza oso handiez hitz egiten ari gara, diametroan 2,6 metro ere dituzten piezez, baita ere pieza horiek plantan instalatzeko beharrezkoa den guztia hornitzeaz –junturak, buloiak, azkoinak eta horiek denak estutzeko ekipamenduak– eta pieza bakoitzari egin beharreko proba hidrostatiakoak eta ultrasoinukoak egiteaz. Bezeroaren feedbacka oso ona izan da, eta gaur egun hasierako paketea handitzea negoziatzen ari gara.

## ULMA INOXTRUCK

# Farmazia sektorea: standing altua!

**FARMAZIA SEKTOREA NEKAZARITZAKO ELIKAGAIENA BEZAIN HANDIA EZ BADA ERE, ENPRESA FARMAZEUTIKOEN PRESTASUN HANDIAGO DUTE BEREN ESKAKIZUNAK ASEKO DITUZTEN PRODUKTUEN TRUKE GEHIAGO ORDAINTZEKO**

Ekipamenduen espezifikazio teknikoei eta homologazio prozesuen baldintzei dagokienez, farmaziako laborategiek oso exijentzia maila handia dute, elikagaien enpresek baino handiagoa. Bidearen zati bat egin genuen dagoeneko, erabakita baikenuen sektore honetarako ekipamenduak zein altzairu herdoilgaitz motarekin fabrikatuko genituen (304L/316L) eta osagai elektronikoekin zein IP babes erabiliko genituen. Gure produktuen kalitateari, sare komertzialaren lan etengabeari, eta ELUR bezalako enprekin lankidetzan aritzeari esker –gela zurien diseinuan eta ekipamenduan dihardu–, hainbat hilabetez lanean aritu ondoren, gure bezeroen artean nazioartean ospe handia duten enpresak izatea lortu dugu, horien artean ROCHE, NOVARTIS edo GLAXOSMITHKLINE, baita hain ezagunak ez diren beste batzuk ere, hala nola ALLERGAN eta ABBVIE (Abbott) iparramerikarrak edo ORION finlandiarra. Sektore horren tamaina ez da nekazaritzako elikagaiena bezain handia, baina farmazi enpresak prest daude beren eskakizunak betetzen dituzten produktuen truke gehiago ordaintzeko.





## ULMA Agricolaren G12 berotegi berria instalatu da Mexikon ere bai



ULMA Agricolaren G12 modeloaren onuren artean nabearen zabalera nabarmentzen da, 12,8 metro, berotegi barruan barruan aprobetxatu daitekeen espazioa maximizatzen duena. Zutabeen arteko distantzia handiagoa konpentsatzeko arkuen 90 mm-ko profil obala erabiltzen da, bolumenaren eta erresistentziaren arteko oreka optimizatuz.

ULMA Agricolaren G12 modeloak berotegiaren gangan du altuerarik gorena, zenitaren gunean 9.6 m altu hartzen baitu, eta egiturak, berriz, 6 m hartzen du erretenaren azpian.

**ULMA AGRICOLAK BERE PRODUKTUEN AUKERA ZABALDUZ OSPATU DU MERKATUAN DAGOENETIK 35 URTE BETE DITUELA, MERKATUAREN ESKAKIZUNAK BETETZEKO ETA BEZEROEN BEHARRAK ASETZEKO.**

### | 35. urteurrena

Berotegia fabrikatzeko jarduera ULMA Construcciones barruko negozio lerro moduan hasi zen, 1979an, baina poliki-poliki eta negozio txiki hura bere merkatu kuota handituz joan zen, gaur egungo ULMA Agrícola negozioa bilakatu arte, zeinak 2007tik negozio independente gisan diharduen.

Hastapenetan, ULMA Agrícola tunel erako berotegi egiturak edo instalazio oso bakunak fabrikatzen eta hornitzen lan egin zuen, baina gaur egun soluzio integralak eskaintzen ditu nazioartean, ingeniariatza maila handiarekin.

ULMA Agrícola, Bezeroa Zerbitzatzeko printzipioarekin zintzo, eskari bakoitzaren beharretara ondoen egokitzen zaion irtenbidea eskaintzeko lan egiten du beti. Horretarako, instalazioak zein herrialdeetan egiten diren eta bertako baldintza klimatikoak zein diren aztertzen da, eta kasu askotan egitura bereziak garatzen dira, bezero bakoitzaren beharretara egokitzeko instalazio bakoitzerako proiektu bakarrak sortuz.

Merkatuan 35 urteko esperientzia duelarik, ULMA Agrícola produktuen aukera zabala du dagoeneko, eta hori zabaltzen eta bilakatzen ari da, eta etengabe sortzen diren beharretara egokitzen.

### | Soluzio berriak

ULMA Agrícola presentzia handia du Erdialdeko eta Hego Amerikako merkatuan; bertako klima beroa eta hezetasun handikoa denez, eskatzen diren azpiegiturak bolumen handiko berotegiak dira, instalazioaren barnean aldagai klimatikoak hobeto kontrolatzeko. Horregatik hain zuzen, ULMA Agrícola G12 modeloko berotegia sartu du bere produktuen katalogoan, klima horren behar bereziak ezin hobeto asetzen dituen. Berotegi modelo hori ULMAko produktu multikapera gotikoaren lerrokoa da.

ULMA Agricolaren Multikapera Gotikoaren produktulerroarenezaugarriadabarrualdean bolumen handiagoa lortzeko diseinatu den egitura dela. Egituraren forma gotikoari eta arkuen inklinazioari esker, eguzkiaren erradiazioa hobeto aprobetxatzen da eta, aldi berean, laborearen ganean tanta jarria gertatzeko arriskua murrizten da, kondentsazioa hobeto husten delako erretenetan. Horrek guztiak berotegiaren ezaugarriak ahalik eta gehien areagotzen ditu eta, egitura sendo bat sortzen delarik, barruan leku erabilgarri handiagoa dago eta klima hobeto kontrolatzen eta inertzia termikoa hobetzen da.

ULMA Agricolaren G12 modeloak negutegiaren bobedan altuerarik handiena

lortzen duen egitura da, maila gorenean 9.6 m erdietsiz, erreten azpiko 6 m-ko egiturekin.

### | G12 Mexikon instalatuta

ULMAk Mexikon egin duen instalazioa dagoeneko ULMA Agricolaren G9 modeloko berotegiak zituen eta ULMA Agrícola eskaintzen dion produktuaren eta zerbitzuaren kalitatea ezagutzen zuen bezero batentzat egin du. Oraingo honetan bezeroak 2,5 hektarea gehiagorekin zabaltu du instalazioa.

Klima bero eta hezetasun kontzentrazio handikoak dituzten instalazioetan ohikoa denez, berotegiak tximeleta moduko aireztapen sistemak dauzka, instalazioan aireztapen uniforme lortzeko. Egitura osatzeko alboetan balkoiak daude, haizeari eta laborearen kargari erresistentzia handiagojartzeko, eta sabaian, alboetan eta aurrealdean kamera puzgarri bat dago, hobeto isolatzeko eta barruko klimaren kontrola optimizatuz.

ULMA Agrícola hainbat proiektu lantzen jarraitzen du G12 berotegiarekin. Egitura horrekin nabarmen gainditu dira bezeroen aurreikuspenak, eta oso pozik geratu dira lortutako emaitzekin.





## ULMA PACKAGING

### Txinan haragiaren sektorean diharduen Shuangui erraldoiak ULMA Packagingen soluzio oso bat eskuratu du


Instalazioak egiten dituen ontzietan saltxitza ale bat daukate, espezieen oinarri batekin.

Instalazioak prestazio altuko eta 16 luze baino gehiago den TFS 700 termoformatzaile bat dauka integratuta, eta gaur egungo enbasatze higienikorako ekipamendurik aurreratuenak dauka.

Instalazioa oso-osorik automatizatuta dago. Espezieen dosifikaziotik saltxitzak beraiek kargatzeraino, den-dena modu automatikoan egiten da, langilerik behar gabe.

Bi zelula robot bikoitz ditu, delta modukoak, produktua termoformatzaileak ontzian konformatutako barrunbean kargatzeaz arduratzen direnak. Kargatzeko roboten eraginkortasun handiari eta lortzen duten produktibitate mailari esker, saltxitxen birzirkulazioa ahalik eta gehien saihesten da eta, ondorioz, produktuak kalte hartzeko arriskua ia erabat desagertzen da.

Proiektu honekin, ULMA Packagingek Txinako elikagaien talde handi honen konfiantza lortu du, eskakizunik zorrotzeneri erantzuteko gai baita.



## ULMA COSTRUCTION

### ULMA Eraikuntzak Euskararen Zilarrezko Bikain Kalitate Ziurtagiria lortu du, Eusko Jaurlaritzaren eskutik



Azaroaren 18an Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakariak Bikain Euskararen Kalitate Ziurtagiriak banatu zituen Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. 300 pertsonatik gora elkartu ziren ekitaldian, ziurtagiriaren zazpigarren edizioan. Raul Garcia ULMA Eraikuntzako lehendakaria eta Euskara Batzordeko kideak ere bertan izan ziren, Euskararen Zilarrezko Bikain ziurtagiria jasotzeko.

Guztira, 39 erakundek jaso dute ziurtagiria. Horietatik hamabik goimailako urrezko Bikain ziurtagiria jaso dute; hogeik zilarrezkoa eta zazpi

oinarrizkoa. Bikain Kanpo-Ebaluazioak Eusko Jaurlaritzak antolatzen ditu Euskalit Bikaintasunerako Euskal Fundazioarekin lankidetzan, eta erakunde batean euskararen erabilera, presentzia eta kudeaketa neurtzera daude zuzenduak.



## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Gailurrak eta ur isurkiak zuzen jartzeko bideo berriak

#### ULMAKO POLIMERO HORMIGOIZKO GAILURRAK ETA ISURKIAK

Erabiltzailearentzat kalitatezko eduki interesgarria sortzeko politikari jarraituz, ULMA Architectural Solutionsek ULMAKO polimero hormigoizko gailur eta isurkiak zuzen jartzeko bideo informatibo berriak argitaratu berri ditu.

Prest daude, webgunean bistaratu ahal izateko, Media / Bideoak atalean eta ULMA Architecturalen You Tube kanalean.

Bi bideoen helburua batez ere praktikoa da, berez, gure aurrefabrikatuak instalatzeko orduan kontuan hartu

beharreko gairik garrantzitsuenak argitzeko eta nabarmentzeko balio baitute.





[www.ulmaconstruction.com](http://www.ulmaconstruction.com) >> EN  
[www.ulmaconstruction.es](http://www.ulmaconstruction.es) >> ES / EU

## ULMA CONSTRUCTION

### ULMA Constructionen webgunea edozein gailutan eta euskaraz erabil daiteke

ULMA Constructionek gailuen (mugikorra, tableta, etab.) sarbide, erabilgarritasun eta dibertsitateari buruzko arauetara egokitu du bere webgunea. Une hauetan, sistema web korporatiboan ingelesez dago aktibo, eta Espainiako webean gaztelaniaz eta euskaraz, eta urtearen amaierarako Polonia, Brasil, Mexiko, Txile eta Peruko guneak egongo dira funtzionamenduan.

Premisetako bat izan da gaur egungo webguneari diseinu moldagarria edo responsive design aplikatzea. Sarean nabigatzen duten gailu mugikorak dituzten erabiltzaileen kopurua gero eta handiagoa izanik (kasu askotan %10 inguru), webgunearen diseinua moldagarria edo responsive izatea beharrezkoa da. Teknika horri esker, edozein gailutatik ezin hobeto bisitatu daiteke webgune bat, izan telefono mugikorra, monitore handia duen mahai gaineko ordenagailua, tableta, etab. Horrelako diseinua izanik, ez da beharrezkoa gailu bakoitzerako bertsio bat izatea, webgune bakarra horietara guztietara egokitzen baita.

YouTubeko kanal propio batean ikus-entzunezko eduki ugaritan sartzeko aukera izateaz gain, erabiltzaileak NEWS albiste buletinera ere harpidetu daitezke.

**Deskubritu nobedade hau eta beste batzuk [www.ulmaconstruction.com](http://www.ulmaconstruction.com) helbidean.**

Hauxe da 2013an hasi zen komunikazio estrategia berritzeko ekimenaren barruan egindako azken urratsa. Negozioaren izaera internazionala nabarmentzeko eta ULMA Constructionen jarduera definitzeko xedearekin, domeinua aldatzea planteatu zen: **[www.ulmaconstruction.com](http://www.ulmaconstruction.com)**, eta hori aurtengo martxoan gauzatu da. Hori izan da estrategia digitalaren eta edukiei buruzko strategiaren abiapuntua ULMA Constructionen proposamenak ezagutu nahi dituzten pertsona guztientzat. Horretarako, eduki korporatiboa eta merkatu eta arlo geografiko bakoitzaren berezitasunak konbinatzen ari dira.

## ULMA CONVEYOR COMPONENTS

### ULMA Conveyor Components. Vattenfall Alemania homologatuta

ULMA Conveyor Componentsek Vattenfall Alemaniako meategian homologatzea lortu du. Homologatzeko prozesua 2010. urtean hasi zen, eta aurten amaitu da, 2015-19 ordezko arrailetarako lehiaketan parte hartzea ahalbidetu digun ziurtagiria lortuta.

Vattenfall Europako talde energetikorik handienetakoa da, Suediako gobernuaren jabetzakoa, eta operazioak egiten ditu Eskandinavia, Alemania, Holanda, Frantzia eta Erresuma Batuan. Vattenfall Alemaniaren ekoizpenaren %87 inguru erregai fosiletatik dator, eta batik bat konpainiaren jabetzakoak diren lignito meategietatik erauzten dira (Jämschalde, Nochten eta Welzow).

ULMA Conveyor Components gama altuko arrabol berri bat garatu du, bezero horrentzat bereziki, abiarazteko esfortzu, dinamika, soinu eta eszentrikotasunari buruzko eskakizun guztiak betetz (TIR eta MIS).

Bezerorik zorrotzenetakoak gama altuko arrabol berria homologatzea lortzeak bultzada handia ekarriko du Alemanian etorkizunerako ditugun planetarako, eta Alemaniako gainerako talde energetikoetan sartzeko lagunduko digu.





## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

### Fatxada aireztatua barrualderako eta kanpoalderako

ULMA Architectural Solutionsek Bartzelonako Catalonia Passeig de Gràcia hotela zaharbertzen parte hartu du, polimero hormigoizko **Fatxada Aireztatuaren** sistemarekin.

Eraikina XIX. mendearen amaierakoa da, eta jatorrizko egituraren elementu ugari kontserbatzea erabaki zen, esaterako, fatxada ikusgarria, zeinean mahats parrako hostoan inspiratutako azulejoak ikus daitezkeen oso-osorik.

ULMA Architecturalek gune komunak jantzi ditu, hala nola igerilekua duen terraza eta jangela. Jacinto Arqués Fusté eta Romà Arañó i Güell **barrualdea zein kanpoaldea estaltzeko materialaren** bila ibili ziren, eta ezaugarri hori ULMAren polimero

hormigoizko Fatxada Aireztatuak betetzen du.

Dekorazio berrian fatxadaren jatorrizko izaerari keinua egin nahi izan zaio eta, arrazoi horregatik, arkitektoek **CREAKTIVE gamako mahats parrako hostoaren forma duen egitura hautatu zuen, kolore zurikoa. VANGUARD gamako LURRA harrizko egiturarekin** konbinatu da, M19 kolore grisarekin.

Proiektua egin duen Jacinto Arqués Fusté arkitektoak dagoeneko erabili zuen ULMAren fatxada aireztatua Catalonia Ramblas hotelarako, Bartzelonako Carrer de Pelai, 28an.



## ULMA TALDEA

### 70 artelan baino gehiago jaso dituen Eskulan Lehiaketaren sari banaketa egin zen



Nahia Lasagabaster eta Paule Ortíz de Apodaka, Eskulan Lehiaketaren irabazleak.

Urtero garai hauetan izan ohi den moduan, ULMA Taldeko egoitza bertako negozioetako bazkideen eta langileen topaleku izan zen urriaren 16an, beraien seme-alaben nortasun artistikoaz gozatu eta horiei omenaldia egiteko.

Seigarren edizio honetan orain arteko marrazki lehiaketaren orde, parte hartzaileei ahalegin handixeagoa eskatu zaie eskulanetan emandako denborari eta erabilitako baliabideei dagokienez. Eta oraingoan ere irudimena eta parte hartzea harrizkoa izan da.

Aurtengo eskulan lehiaketa birziklapenaren eta baliabideen berrerabilpenaren ingurukoa izan da eta etxeko txikiak honetan ere ondo baino

hobeto moldatzen direla erakutsi zuten, 70 eskulan baino gehiago aurkeztuz. Birziklatzeko aldeko jarrerarekin eta asmamen puntu batekin, plastikoa, papera, kartoia edo txapa bezalako materialen biziraupena luza daitekeela erakutsi dute parte hartzaileek benetako artelanak sortuz.

Eskulan guztien erakusketa egin zen, gurasoen gozamenerako eta harridurarako, eta egile guztiek zeramikazko itsulapikoa jaso zuten opari gisa, horrekin batera emandako margoekin euren trebezia artistikoa lantzen jarrai dezaten. Opariak egunkari paperean bilduta eman zitzaizkien guztiei, eta bi lagunek bizikleta bana ere eskuratu

zuten Raul Garcia ULMA Taldeko lehendakariaren eskutik, Komunikazio Batzordeak kostata hartutako erabakiari kasu eginez.

Sari banaketara gerturatutako neska-mutikoen esan zutenek, eskulanak egiten ederto pasatu zuten, eta erabilitako materialak lortzeko orduan etxeko guztien laguntza izan zuten. Hori guztia kontuan hartuta, datorren urterako ere Birziklapena izan liteke eskulan lehiaketarako erabiliko den gaia.

**Aurkeztutako eskularen eta sari banaketaren inguruko argazkiak eta bideoa ikusgarri dauzkazu [www.begira.ulma.com](http://www.begira.ulma.com) helbidean.**

## ULMA CONSTRUCTION

# ULMA Construction World Logistic Event 2014

Joan den irailean ULMA Construction World Logistic Event 2014 egin zen (Logistikako Nazioarteko Batzordea), Toledoko Ajofringo instalazioetan. Lehendabiziko aldiz, filial guztietako arlo horretako arduradunak elkartu dira, logistika eta eragiketen jarraibideak zehazteko, sektore horretan alderdi horiek funtsezkoak baitira bezeroa asebate nahi bada. Etengabeko hobekuntzaren bitartez, helburua lehiakideengandik bereiztea da, giltzarria taldearen esperientzia eta ezagutza izanik.

Hiru egunetan zehar egindako

bileretan landutako gai nagusiak hauek izan dira:

•**Erabilitako materiala mantentzeko eta konpontzeko prozesuen garrantzia.**

Produktuaren iraunkortasuna eta funtzionaltasuna handitzeko eta markaren irudia hobetzeko bide egokia dela jo da. Horregatik, saioretako batean taula fenolikoa konpontzeko sistema berria aurkeztu da.

•**Adierazleak ezartzea eta hobekuntzak kontratatzea.**

Aldizkako neurketetan lortutako datu objektiboak erabakiei ekiteko abiapuntua izan dira. Lehiakortasuna, kalitatea eta

produktibitatea handitzea, betiere azken helburua ahaztu gabe, hau da, bezeroa gogobetetzea.

•**Biltegietan kontaketa egitearen garrantzia.**

Likidazioak optimizatzeko eta bezeroa gogobetetzeko hobekuntzak zehaztea eta ezartzea. Batzordearen bitartez parte hartzaileek ikuspegiak trukatu ahal izan dituzte, garapen berriak ezagutu eta jarraibideak planteatu, zerbitzua eta erantzuteko ahalmena hobetzeko eta, ondorioz, enpresaren jarduerak optimizatzeko.



Ezkerretik eskuinera: Carlos Vilches (Txile), Renato Lewis (BR), Marek Czuprynski (PL), Gabriela Pascu (RU), Karim El Amrani (FR), Alfonso Gomez (DE), Lorenzo Lonardi (IT), Christian Grams (DE), Angel Biain (ES), Carlos Trujillo (PE), Carlos Juarez (AR), Iker Mendiluze (ES), Edgar Minchuk (US), Felix Esperesate (ES), Josu Gorostidi (ES) eta Miguel Berrio (US)

## ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

# Sareta artekatua Plaza Mayor merkataritza gunean, Leon, Mexiko

## DRAINATZEKO SARETA ARTEKATUA DUEN SOLUZIOAK ERABATEKO MIMETIZAZIOA LORTU DU HIRI PAISAIAREKIN

Plaza Mayor merkataritza gunean **Self 200 drainatzeko kanalak** instalatu dira, sareta artekatua dutenak, eta horien abantaila nagusia da drainatzeko ahalmen handia dutela eta zoruarekin estetikoki integratzen direla. Sareta ia ez da ikusten estetikoki, baina ura drainatzeko eginkizuna ezin hobeto betetzen du, eta horregatik asko erabiltzen da merkataritza guneetan, pasealekuetan eta oinezkoentzako guneetan.

"T" alderantzikatuaren forma duen sareta modelo horrek **D-400era** arteko karga mota jasaten du, EN1433 Arauaren

arabera, eta **arteka bakuna edo bikoitza** izan daiteke, eraginkortasun hidrauliko handiagoa lortzeko, edo **albokoa** izan daiteke, hormetatik hurbil dauden lekuetan jartzeko.

### FITXA TEKNIKOA:

**HIRIA:** Leon

**HERRIALDEA:** Mexiko

**ZONALDEA:** Leon, Guanajuato Estatua, Mexiko

**ERABILITAKO PRODUKTUAK:** Sareta

artekatua SELF200 kanalarekin

**PROIEKTU MOTA:** Obra berria



## ULMA ORGA JASOTZAILEAK

Europea de Carretillasek, ULMA Orga Jasotzaileak negozioak Valentzian duen banatzaile baimendunak, mantentze eta biltegitratze lanetarako azken berritasunak aurkeztu zituen

Urria biltegi, banaketa eta saltokikoei buruzko ENCAJA azokaren edizio berri batekin hasi zen. Ekitaldiak bigarren edizioa bete du, eta Valentzian egin zen urriaren 1ean, asteazkena, eta 2an, osteguna.

ENCAJAK enpresak hobetzeko soluzio eraginkorrak eta errealak eskaintzen ditu, biltegitratze, banaketa eta saltokiari dagokienez.

Aurten ere, erakusmahaien aldea nabarmendu da bereziki –oraingoan bikoiztu egin da azalera iazkoarekin alderatuta–, eta bertan 25 enpresak beren nobedade nagusiak erakutsi zituzten simulazioen eta erakustaldi praktikoen bitartez.

Enpresa parte hartzaileetako bat ULMA Orga Jasotzaileak etxeak Valentzian duen banatzaile baimenduna izan zen, Europa de Carretillas SL., Enpresa hau 1990ean sortu zen, bezeroei eguneroko zereginetan hurbiltasuna, kalitatea eta konfiantza ematearen alde egin zuen eta, urteen poderioz, erreferentzia bihurtu da produktu berrien zein aukerakoen alokairuaren eta salmentaren sektorean, eta bere zerbitzu teknikoa, kalitate egiaztatua duena, gai da bere bezero guztiei erantzun azkar eta fidagarria emateko.

ENCAJA 2014 beste hiru azokarekin batera egin da: Eurobrico, brikolajearen

## ULMA HANDLING SYSTEMS

ULMA Handling Systemsek jarduteko gida bat jarri du langileen esku atzerriko irteeretarako

ULMA Handling Systemsek negozioaren nazioartekotze prozesuari lotutako zabalkunde gida bat diseinatu du, izan ere, Europa, Amerika eta Afrika kontinenteetako, gero eta herrialde gehiagotan dago presente, eta helburua bikoitza da: alde batetik, lan gaiengatik atzerrira joaten den orori oinarritzko informazioa ematea, eta, bestetik, bidaiatzeko orduan kontuan hartu beharreko gomendioak ere.

Gida sortzeko diziplina askoko talde bat eratu da, Giza Baliabideek gidatuta, eta bertan arlo desberdinetako pertsonak parte hartu dute: LAP, Bidaien kudeaketa, Sistemak eta Giza Baliabideak, eta horiek Finantzen eta Osasuna Zaintzeko Zerbitzuaren laguntza izan dute.

Gidetako lehenaren helburua (nazioartekotzeari lotutako gomendio orokorren gida) bidaiarientzat oinarritzko informazioa zentralizatzea eta gogoraraztea da, hala nola



bidaiako laguntza, beharrezko legezko dokumentazioa, ordaintzeko moduak, osasun laguntza, prebentzio neurriak (segurtasuna eta osasuna), eta komunikazio telematikorako gomendioak. Gida horretan bidaiarientzako jardunbideak eta jarraibideak laburbiltzen dira aipatutako gaietara dagokienez.

Gomendio orokorren gida horrekin batera fitxa bereziak diseinatzen ari dira presentzia dugun herrialde bakoitzerako (bai produkzioaren arloan bai arlo komertzialean), helmugako herrialdean beharrezko tramiteei eta lehentasuneko kontaktuari buruzko informazio zehatzagoa eduki ahal izateko.

nazioarteko azoka, Iberflora, landare eta lore eta lorategiko teknologia eta brikolajearen azoka, eta Vegetal World, nekazaritzako berrikuntza eta teknologiaren foro profesionala.





## ULMA CARRETILLAS ELEVADORAS

# ULMA Orga Jasotzaileak-ek Mitsubishiren azken erronka handia aurkeztu du: EDiA EX berria

Daitekeena da orga elektrikoak erabiltzeko arauak betiko aldatzea, Mitsubishiren EDiA EX 80 volteko modelo elektriko berria merkaturatu eta gero.

Serie berria plazaratzeak iragana eta gero markatuko ditu gaur egun arte biltegiatzearen arloan onartuta zeuden praktketan, batez ere espazioa oso txikia den lekuetan.

Bereziki azpimarratzekoa da orgak jasotzeko duen ahalmena, bere tamaina kontuan hartuta. Bere ahalmen berdina duen -2,5 eta 3,5 tona artean- beste edozein orga baino nabarmen txikiagoa izanik, EDiA EX berriak karga handiak 7 metroko altuerataraino jasateko behar besteko indar eta egonkortasuna du, inolako arazorik gabe.

### || Direkzio arin-arina

Horri direkzio bakarreko konfigurazioa gehitu behar zaio -atzeko gurpilek direkzioa dute, eta 100 gradu baino gehiagoko angelu batean biratzen dute, eta aurreko gurpilek trakzio motor indibidualak dituzte-, eta, horrenbestez, orgak oso direkzio arin-arina dauka, bere ardatzaren inguruan pibotatzeko ahalmenarekin.



Emaizta moduan, Mitsubishik espazioa eraginkortasun handiagoz erabiltzeko aukera emango du, karga handiak pasabide estuetan urrutiago eta gorago eraman ahal izateko.

### || Ezin hobea barrurako zein kanporako

Halere, biltegiatoko barrualdeak eta pasabide estuak ez dira 80 volteko EDiA EX berriak bide berriak urratuko dituen leku bakarra.



Motor hidraulikoa eta trakzio bidezko motorrak guztiz zigilatuta daude, ura eta hautsa sartu ez dadin, eta, ondorioz, babeserako IP54 sailkapen ofiziala betetzen da; horrekin batera urarekiko erresistentziaren gaineko IPX4 espezifikazio industriala ere betetzen delarik, orga ezin hobea da kanpoaldean erabateko segurtasunaz lan egiteko.



### || Gasik isuri gabe eta ia mantentze lanik gabe.

Ondorioz, gas igorpen kontrolatua duten lekuetan dagoeneko ez da beharrezkoa izango barne errektantza duen orga osagarri bat izatea euria egiten duenean aire librean lan egiteko. Halaber, EDiA EX organ mantentze lanak zero dira, balaztak zigilatuta egonik hautsaren eta hezetasunaren kontra babestuta baitaude, eta berriak bezala mantentzen baitira denbora gehiagoan. Energia elektriko jasagarriaren, kalitatearen eta diamante baten balio iraunkorraren arteko konbinazioa,

berrito ere, Mitsubishiren EDiA seriean gauzatzen da.

### || Segurtasunak eta konfiantzak produktibitatea areagotzen dute

Aitzitik, langilearentzat zerbaitek balio handia baldin badu, hori orga berria gidatzeak eragiten dion esperientzia da. Egonkortasun bikaina eta ergonomia bakarra izanik, orga osoa langilea eroso sentitu dadin diseinatuta dago, baita lan txandak luzeak direnean ere.

EDiA EXek konfiantza ematen du berehala, eta ahalik eta produktibitate handiena bultzatzen du hasiera-hasieratik. Eragintza sentitiboko sistema aitzindariak (SDS edo Sensitive Drive System), modu adimentsuan egokitzen du orgak langilearen mugimenduei ematen dien erantzuna, eta gainera, bihurtuenerako egonkortasun sistemari esker, bihurtuenerako hasierako abiadura optimizatzen du eta errendimendu eraginkorra eta egonkorra eskaintzen du, baita desplazamendu abiadura handietan ere.

Are gehiago, EDiA EXek aukera malgua eskaintzen du gidatzeko moduari dagokionez: PRO modua - errendimendu handikoa- zorrotzagoak diren gidari esperientziadunentzat gomendatzen da, eta ECO modua -



estandarra-, berriz, pertsona berrientzat edo esperientziarik ez dutenentzat da egokia, eta aplikazio estandarretan eraginkortasun energetikoa maximizatzeko konfiguraturuta dago.

Kabina irekia eta garbia da, distrakziorik ez izateko, eta xehetasun guztiak –direkzioaren zutabetik kontrapisuaren kokapenera arte– kontu handiz diseinatu dira, langileak karga zein sardea eta atzerako martxaren angeluak ahalik eta ondoen ikusi ditzan.

#### || Ekipamendu osoa

Serietik datozen bezala, LED argiztapena dute mastan instalatuta, gelditzeko freno automatikoa aldapan atxikitzeke eta LCD pantaila koloretako irudiarekin, eta, horrenbestez, EDiA EX orgak orain arte ikusi gabeko serieko prestazioen pakete paregabea eskaintzen du, kategoria horretako orga elektrikoaren arloan iragana eta geroa markatuko dituena. Zerbaitegatik jotzen da merkatuan bere kategorian indartsuena, intuitiboena eta eraginkorrena dela.

EDiA EX gaman 5 modelo daude, 2.5 -3.5 tona arteko karga ahalmenarekin, ULMAren orga kontrapisatu elektrikoaren gama osatzera datozenak, horien artean 1-5 tona arteko karga ahalmena duen modelook egonik.

#### ULMA INOXTRUCK

## ULMA Inoxtruck: 4 urte Sustapeneko Negozio gisa eta aurrera

Negozioak izandako bilakaera ona eta 2014ko ekitaldi honetako emaitzak ikusirik, ULMA Servicios de Manutencioneke Kontseilu Errektoreak 2010. urtean sustapen moduan abiarazi zuen ULMA Inoxtruck negozio filiala behin betiko finkatzea erabaki du.

Salmenta zifraren igoerak azken 4 urteotako bilakaera jarraitua berretsi du, urtero %35etik gorako hazkunderekin, baina, gainera, industri jardueraren adierazleak ere hobetu dira, marjina gordina %40tik gora kokatu delarik, eta arrazoi horiek eraman dute etorkizuna duen negozio baten alde egiteko erabakia

hartzera. ULMA Inoxtruckek, bere gamaren barruan produktu berritzailea fabrikatzen duelarik, dagoeneko bere ekoizpenaren %50 baino gehiago esportatzen du Argentina edo Zeelanda Berria bezalako urruneko herrialdeetara.

Atzean geratzen dira sustapen urteak, zeinetan ULMA Servicios de Manutencioneke zein Mondragon Korporazioak edo ULMA Taldeak berak ULMA Inoxtrucken l+Garen garapenaren pisuari eutsi dioten, eta azkenean 8 produktu familiaren katalogo bat osatzea lortu da, nekazaritzako elikagaien zein farmazi industriaren sektoreetarako.



#### ULMA ARCHITECTURAL SOLUTIONS

## Juan Jesus Alberdi, ULMA Architectural Solutionseko gerente berria

Juan Jesus Alberdi izendatu dute duela gutxi ULMA Architectural Solutionseko gerente berria izateko, Mikel Izurieta ordeztuz. Juan Jesus Alberdi ezkondua da eta bi seme-alaba ditu, 51 urte ditu, eta Goi Mailako Ingeniaria eta Master in Business Administration da.

Ibilbide profesional zabala duelarik, Juan Jesus Alberdi ELAY Taldeko eta CEGASAKo zuzendari nagusia izan da, eta enpresaren zein kudeaketaren arloko eduki garrantzitsuko hainbat postu ere bete ditu.





*Aurrera egiteko giltzarria, denboran errentagarria izango den negozio eredu bat izatea da.*



## “Edozein konpromiso indartzeko ez dago pertsonen motibazioa bezalakorik.”

IÑAKI MEDINA. ULMA PIPINGeko lehendakaria

Baliteke krisi garai honetan ULMA Piping salbuespena izatea; baina egia da, baita ere, orokorturik dagoen krisi testuinguruak eragina duela, hala edo hola, gure Negozioan.

Iñaki Medina lehendakariarengana jo dugu, egungo egoerari buruz egiten dituen gogoetak jaso nahian.

“ Lehenik eta behin, Iñaki, enpresetan zikloak izaten direla jakinda ere, ULMA Pippingek jakin izan du orain arte krisiari aurre egiten. Zein da “sekretua”?

*Sekretu gutxi dago. Nire ustez, hainbat faktore giltzarri elkartu dira.*

*Lehenengoa: egin beharreko inbertsioetan asmatu egin dugu eta esan dezakegu ULMA PIPINGek merkatuan hartu duen posizioa oso ona dela. Bigarrena: gure produktuaren*

*helburuko sektorean krisiaren ondorioak ez dira beste sektore batzuetan bezala nabaritu. Azkenik, merkatuen dibertsifikazioa aipatu behar da, arlo hori ULMA Pippingek oso ondo landu baitu, izan ere, 70 herrialdetan saltzen dugu. 3 faktore horien konbinazioari esker, Pippingen beste negozio batzuetan baino hobeto saihestu ahal izan dugu krisia.*

“Gaur egun, badirudi elkartasuna dela aurrera egiteko giltzarrietako



**bat; zure iritziz, kolektibo moduan kohesionatuta gaude, eta gure Negozioarekin eta Taldearekin konprometituta?**

Nire ustez, aurrera egiteko giltzarria, denboran errentagarria izango den negozio eredu bat izatea da. Baina aurrera egiteaz hitz egiten dugunean, une puntualetan edo jasaten gabiltzan krisian bizirauteaz ari bagara, eta elkartasunaren printzipioa aipatzen dugunean, batetik, birkokapenen bidez enpleguari laguntzeaz, eta bestetik, birmoldaketan nahiz kooperatiba arteko maileguen bidezko laguntza ekonomikoez ari bagara, ba, argi dago elkartasuna une puntualetan aurrera egiteko giltzarrietako bat dela.

Bigarren galderari dagokionez, uste dut kolektibo gisa gure Negozioarekin bagaudela konprometituta. Kolektibo gisa ULMA Taldearekiko dugun konpromisoa, zintzo hitz eginda, konplikatuagoa delakoan nago. Kontuan hartu behar da egunerokoan ez dugula zuzeneko harremanik ez beste Negozio batzuekin ez Taldearekin, eta horrek ez duela loturak sortzen laguntzen. Gure kasuan oso agerikoa da; esate baterako, duela hilabete pare bat Taldeak (ULMA GARA) antolatutako ekitaldi batera joateko eskatu ziguten eta gure kooperatibatik ez zen jende asko bertaratu. Adibide horretan argi ikusten da Taldea urruneko zerbait iruditzen zaigula oraindik. Lehendakari gisa, eta beste organoekin batera, alor hori gehiago landu behar dugu, jakina.

**« Zure ustez, Kooperatibek/ Negozioek eta Taldeak zer tresna indartu behar dituzte inplikazio hori sendotzeko?**

Nik gauza bat argi daukat: edozein konpromiso indartzeko ez dago pertsonen

motibazioa bezalakorik.

Taldean Zuzendaritzako bilerak, Batzordeak, Kontseilu Soziala eta Kontseilu Orokoaren bilerak izaten dira. Bertan askotariko gaiak lantzen dira, izan estrategikoak, izan eguneroko gaiei loturikoak, eta denoi eragiten diguten erabakiak hartzen dira. Baina gutxitan hitz egiten dugu Taldean dugun inplikazioaz eta inplikazio horretaz dugun ikuspegiaz. Batzorde eta bileretan, beharbada, tarte bat hartu beharko genuke aztertzeko zer egin dezakegun pertsonak gehiago motibatuzko eta inplikatzeko.

**« Gure Negozioek erronka berriei heldu eta testuinguru global batean moldatu behar dute; formula kooperatiboa hori lortzeko modurik onena dela uste duzu?**

Teorian bai, eta ni ziur nago hala dela. Teorian diot, bazkideen esku dagoelako nolako kooperatibak nahi ditugun. Denok partekatzen dugun ereduak dira kooperatibak, eta horrek sekulako potentziala izan beharko luke datozkigun erronkei aurre egiteko. Errealitateak erakusten duenez, ordea, badirudi gizartea aldatu egin dela eta zerbaiten kide izatearen sentimendua urrunago ikusten dela.

**« Uste duzu Kooperatibek behar besteko arintasuna dugula hain ingurune aldakorrean erreakzionatzeko? Hobetzeko zer neurri edo tresna ezarri litezke?**

Betidanik esan izan da Kooperatibek, gure funtzionatzeko eredu dela-eta, arin erreakzionatu dugula ezusteko egoeren aurrean. Organoen bidez baditugu arinak izateko bitartekoak; hala ere, negozio batek neurri bat hartzeko duen arintasuna, negozio horren esku baino ez da egongo. ULMA Taldearen kasuan, nik

uste bai jakin dugula halako arintasun batez erreakzionatzen, enpresaren tamaina doituz, lan aurrerakina doituz, etab. Ez da erraza izan neurri horietako asko hartzea, baina, nire iritziz, erabakiak arin hartzeaz gain, erabakiok eraginkorrak izan behar dute.

**« Azken galdera denei egiten diegun bera da. Zure ustez, ULMA Taldeak, helburu sozial bat duen Taldea den aldetik eta Fundazio bat tresna gisa edukita, bere proiektu soziala indartu eta bultzatu beharko luke?**

Bai, baina mundu guztiak argi izan beharko luke zein den ULMA Taldearen Proiektu Soziala. Uste dut denok dugula argi proiektu hori zein den. Jakin badakit Taldearen Organoetan gai zehatz hori lantzen dabilzala. Denon artean eztabaidatzeari interesgarria deritzot.

**«**  
 ULMA Taldearen kasuan, nik uste bai jakin dugula halako arintasun batez erreakzionatzen, enpresaren tamaina doituz, lan aurrerakina doituz, etab. Ez da erraza izan neurri horietako asko hartzea.

# ULMA Taldearen Gestio Sozialaren Arloa



Hauek dira arlo sozialaren ahaleginen ardatzak: ULMA Taldean pertsonekin lotuta dauden politika komunen garapena eta aplikazioa koordinatzea, Negozioek Giza Baliabideen arlora bideratzen dituzten eskaera zehatzei erantzuten laguntzea, eta aipagai dugun arloan kudeaketarako modu eta tresna berriak identifikatu eta proposatzea.

Lantzen diren gai zehatzak askotarikoak dira: araudiak, balorazioa, ordainsariak, hautaketa, krisiak enpleguan eragiten dituen ondorioei erantzutea, ordezkariak Mondragonen, etab.

**Araudiei** dagokienez, Taldearen arauak Negozio guztietan modu homogeneoan aplikatzea bilatzen da, eta interpretazio arloko kontsulta dezente jasotzen dira. Gainera, Kontseilu Orokorrari aholku ematen zaio bai araudi berrien sorkuntzaz bai lehendik dauden arauak aldatzeaz. Hona hemen azken urteotan onartutako araudi batzuk: birkokapen koiunturalei buruzkoa, birkokapenaren finkapenari buruzkoa, eta baita negozio barneko lekualdatzeen tratamendu eta konpentsazioari, ordaindutako baimenei, prestakuntzari eta grebei buruzkoak ere. Halaber, bazkideen eta Negozioen premia berrietara egokitu beharra duten beste araudi batzuk ere ari gara

jorratzen.

Analisten Batzordea ere aplikazioaren homogeneousuna bilatzeko xedez koordinatzen da, izan ere, hori dugu lanpostuen **balorazioa** aztertzeaz arduratzen den organoa, negozio desberdinen arteko zuzentasuna helburu duena.

**Ordainsariei** dagokienez, ULMA Plusen abian jartzea koordinatu dugu eta atzerrian egindako lanengatiko zerga salbuespenaren aplikazioan kolaboratu dugu. Proiektu bion helburua hauxe izan da: ULMA n diharduten pertsonak aurrezpen fiskalak izatea.

Gai horrekin lotuta, eta ULMA Constructionen laguntzarekin, nomina kalkulatzeko erabiltzen den softwarea mantentzeko eta hobetzeko lana ere hor dago. Legearen aldaketetara etengabe egokitu beharra dago, eta pertsonendako hobekuntzak egiten jarraitu, esaterako, nominak euskaraz jasotzea.

**Prestakuntzaren** arloan, urtero antolatzen eta koordinatzen dira "harrera plana" eta kontseilu errektore nahiz sozialeko kide berriei zuzendutako prestakuntza; baita erretirorako prestatzeko prestakuntza ere, egoera berriei aurre egin behar dieten pertsonentzat halako ekintzak baliagarriak direlakoan.

Aurten, gainera, enplegurako kualifikazio programa bat jarri da martxan Mondragonekin batera, Lanbide heziketa arauturik ez duten pertsonak heziketa hori eskuratzeko aukera izan dezaten. Lehenengo txandan, beren lanpostuetan krisiaren eragina izan duten pertsonetara mugatu da eskaintza, baina etorkizunean eskaintza hau interesatuta dauden guztiei zabaltzea espero dugu. Prestakuntza honek ahalegin handia eskatzen du parte hartzaileen aldetik, baina hobekuntza nabarmena da bai arlo profesionalean bai enplegarritasunean.

**Hautaketaren** arloan, Negozioei laguntza ematen segitzen dugu eskatzen diren prozesu eta probak aurrera ateratzeko. Aurten, gainera, datu base berri bat egiten ari gara, ULMA n lan egin nahi duten pertsonen modu erosoan egin dezaten eskabidea,

eta Negozioentzat ere prozesua eraginkorreragoa izan dadin. Era berean, ULMAko kide izateko interesa erakusten duen edozeinen aurrean ULMAren irudia hobetzea bilatzen da.

Azken urteotan, halaber, ULMA osatzen duten Negozio batzuetan **krisiak enpleguan eragindako ondorioei** erantzun behar izan zaie. Beren enpleguan krisiaren ondorioak jasan dituzten ULMAko kideek Taldean sortzen diren aukerak aprobetxa ditzaten Negozioek egiten dituzten ahaleginak koordinatzen ditugu. Gainera, ULMA Taldeaz kanpoko beste kooperatiba batzuetan egon daitezkeen aukerak bilatzen ditugu eta, era berean, Enplegu Bulegoarekin eta Lagun Arorekin koordinatuta, langabezia estrukturalan dauden beste kooperatiba batzuetako bazkideak ULMA n dauden lanpostu hutsetan sartzeko ahalegina egiten dugu.

**Mondragonen Ekintza Sozialeko Batzordean** parte hartzen dugu ULMAren eta bertako bazkideen interesak ordezkatzuz, eta Mondragoneko gainerako kooperatibekin kolaboratzen dugu, denon aurrerapen soziala helburu.

Negozioak koordinatzeko, bi foro fisiko hauek daude: Giza Baliabideetako Batzordea, non hilean behin Giza Baliabideetako zuzendariak biltzen diren; eta Giza Baliabideetako Teknikarien Foroa, non bi hilean behin elkartzen diren. Gainera, Taldearen intraneta den Portalen, badira txat batzuk dena delako informazioa eta agiriak trukatu eta erregistratzeko. Ekin berriak diren proiektuen artean bat, hain zuzen ere, Portalen informazio soziala hobetzea da, bai giza baliabideetako profesionalak bai kooperatibetako bazkide guztiek informazio hori eskuragarri izan dezaten.

"Eta bukatzeko, eskerrak eman nahi dizkizuet guztioi hor egoteagatik, arlo sozialak, izatez nahiz jardutez, soilik zuei esker duelako zentzua. Arlo sozialaren edo Giza Baliabideen lana ez litzateke zeregin administratibotara mugatu beharko, izan ere, lan horrek balio erantsia eman beharko luke pertsonen kudeaketaren alor zailean. Uste dut komenigarria dela noizean behin hori gogoratzea".



**RAUL GARCÍA eta JOSEBA MARTINEZ**

Gestio Sozialaren Arloaren Zuzendaria eta Koordinatzailea

Arlo sozialaren edo Giza Baliabideen lana ez litzateke zeregin administratibotara mugatu beharko, izan ere, lan horrek balio erantsia eman beharko luke pertsonen kudeaketaren alor zailean.



*Mondragonen Ekintza Sozialeko Batzordean parte hartzen dugu ULMAren eta bertako bazkideen interesak ordezkatzuz, eta Mondragoneko gainerako kooperatibekin kolaboratzen dugu, denon aurrerapen soziala helburu.*



# ULMA Taldeak lankidetzan dihardu Vicente Ferrer Fundazioarekin etxebizitza berriak eraikitzeko



2004. urteaz geroztik, ULMA Taldea Vicente Ferrer Fundazioarekin konprometituta dauden enpresen sareko kidea da. GKE ezagun honen helburua Indiako hegoaldean dagoen Andhra Pradeshko komunitate behartsuenen bizi baldintzak hobetzea da.



>> Anantapurren (India) etxebizitzak eraikitzeko prozesua, ULMAk Vicente Ferrer GKEarekin duen lankidetzaren emaitza



Estatu horretan ez dago gatazka puntual larririk, bertan dagoena da muturreko gabezia etengabea, eta aldizkako esku hartzeak ez dira gauza gizartearen egituran bertan sakon sustraituta dauden arazo endemikoei aurre egiteko.

Vicente Ferrerren filosofia eta jardueraren oinarrian programa integralak sortzea dago, heziketa, osasuna, emakumea, ezintasuna duten pertsonen arreta, ekologia eta etxebizitza bezalako alderdi giltzarriak zainduz eta landuz biztanleen bizi baldintzak hobetzen direlako, eta komunitate sendo eta autonomo moduan finkatzen direlako.

**Aurten ULMA Taldeak Anantapurren dagoen Ipperu herrian 41 etxebizitza eraikitzea ahalbidetuko duen proiektuan parte hartu du,** Andhra Pradeshko barrutietako batean. Etxebizitza horiek errotik aldatuko dute familien egoera, izan ere, gizarte hain baztertuta daudenez, txabola prekarioetan bizi behar dute, goiko kastetatik bereizita dauden kolonietan elkartuta eta putzuak, letrinak, osasun etxeak edo eskolak bezalako oinarriko zerbitzuetatik urrun.

Vicente Ferrer Fundazioak eraikitako kolonietan osasungarritasunerako gutxieneko baldintzak daude, eta babes eraginkorra dira uholdeak eragiten dituzten euriteetatik, animalia

arriskutsuetatik eta bero zakarretik gordetzeko, baina, batez ere, duintasun sentimendua ematen diote diskriminazio gordina jasaten duen komunitateari.

Vicente Ferrer Elkarteak Nazioarteko Garapenerako etseplu eredugarria sortu du, hein handi batean fundatzaileak garapena ulertzeko zuen moduarengatik. **Vicente Ferrerrek ezagutza handia metatu zuen onuradunen ohiturei eta sinesmenei buruz, eta funtsezkotzat jo zuen programak diseinatzeko eta praktikan jartzeko haiek ere aktiboki parte hartzea.**

Horrenbestez, Ipperuko komunitateak bere jabetzakoak izango diren 41 etxebizitzaren eraikuntzan aktiboki parte hartzearen helburua da erantzukizunaren sentimendua sustatzea, autoestimua handitzea eta komunitate bateko partaide izatearen sentimendua areagotzea.

Erantzukizun sentimendu horren isla da, esaterako, familiak inplikatu egiten direla eta modu naturalean hainbat jarrera eta konpromiso hartzen dituztela, hala nola seme-alabak eskolara eramatea, osasun zerbitzuetara joatea, edo Fundazioak haien gaitasunak garatzeko antolatzen dituen ikaskuntza tailerretara joatea; finean, beren bizi kalitatea hobetzen dute eta gizarte integraziorako bidea leuntzen dute.

**Heziketa, osasuna, emakumea, ezintasuna duten pertsonen arreta, ekologia eta etxebizitza bezalako alderdi giltzarriak zainduz eta landuz biztanleen bizi baldintzak hobetzen dira, eta komunitate sendo eta autonomo moduan finkatzen dira.**

# ULMA Taldean estanolek **kolesterola murrizteko** duten eraginkortasunari buruzko **azterketa** egin da



ULMA Taldearen lan ingurunean egindako ekimena 74 bazkide eta langileren borondatezko parte hartzeari esker egin ahal izan da, eta estanolaren esterren bitartez Kolesterol Totalaren (KT) plasma kontzentrazioa %10-15 inguru murriztu daitekeela dioen hipotesia berresten du.

Azterketaren lagina bi sexuetako pertsonak osatu dute, 30 eta 65 urte bitartekoak; azterketaren hasieran kolesterol totaleko 200 eta 280 mg/dl arteko balioak zituzten eta ez zuten hiperkolesterolemiarako tratamendu farmakologikorik hartzen. Azterketak hiru aste iraun du, eta egunero, otordu nagusiaren ondoren, landare estanoleko 2g ester hartu dute, hau da, Kaiku Benecol® jogurt likido moduan hartzitutako esneki pote bakoitzean dagoena.

## Azterketaren emaitzak hauek izan dira:

- || Aztertutako lagina 74 boluntariok osatu zuten (%74,3 gizonezkoak) batez besteko adina  $45,6 \pm 7,0$  zen, hiperkolesterolemikoak ziren (oinarriko KT  $223 \pm 20$  mg/dl; tarte: 200-280 mg/dl), eta ez zuten inolako tratamendu farmakologikorik hartzen. Gehienek (%75,7) "arina" esan daitekeen HCT zuten (oinarriko KT 200 eta 240 mg/dL artean). Gainerakoek (%24,3) oinarriko kolesterolaren zifrak 240 eta 280 mg/dL zeuden (HCT "moderatua").
- || Batez beste  $24,8 \pm 4,3$  egun igarota, amaierako batez besteko KT  $195,1 \pm 26,0$  mg/dl izan zen.
- || **Hiperkolesterolemiaren batez besteko murrizketa absolutua (IC%95) 27,9 izan zen (21,8-34,1 mg/dl). Termino portzentual edo erlatiboetan, esku hartzearen hiru astera, kolesterol mailak %12,2 murriztu ziren (IC%95: %9,6-14,9).**
- || Kolesterolaren murrizketa absolutua zein erlatiboa nabarmen handiagoa izan zen gizonezkoen artean emakumezkoen artean baino (batez besteko murrizketa absolutua 32,1 mg/dl eta 15,8 mg/dl, eta erlatiboa %13,9 eta %7,3 gizonengan eta emakumeengan, hurrenez hurren).
- || Halaber, **kolesterolaren murrizketa absolutua eta portzentuala** nabarmen handiagoa izan zen oinarriko HCT "moderatua" zutenen artean: 50,1 mg/dl eta %20, eta HTC "arina" zutenena 20,8 mg/dl eta %9,7.
- || **Laginaren %58,1ek (IC%95: %46,1-69,5) 200 mg/dl-tik beherako zifretara murriztu zituen kolesterol mailak**, hau da, normokolesterolemia egoera bateraino.
- || Laginaren %5,4k baino ez zuen molestiarik aipatu hartutako produktuari dagokionez. Eta molestia horietatik bakar batek ere ez zuen pertsona horren interbentzioa eten ezta azterketatik atera ere.

## Ondorioak:

Eraginkorasuna nabarmen handiagoa da gizonengan emakumeengan baino, eta oinarriko HCT moderatuko egoeretan arinetan baino, eta ez dirudi beste ezaugarri batzuek eragiten dutenik, esaterako, obesitateak, hipertentsio arterialak edo adinak. Biztanleriaren ikuspegitik, landare estanoleko esterrekin tratatutako hiperkolesterolemikoek %58,1ek normaltasunaren tartera arte murriztu lezakete kolesterolemia.



ERRETIROAK: 2014ko irailak 1- abenduak 31

Javier  
Atxa Leturia




Juan María  
Zubia Orobengoa



José Antonio  
Zubillaga Iriarte



María Luisa  
Núñez Sal



José María  
Ugarte Ayastuy



Miguel  
Letamendi Ayastuy



Jon  
Arana Barandiaran



Marcelino  
Muñoz Rodríguez



Esteban  
Vázquez Lafuente



Francisco  
Rebollar Álvarez



Rafael  
Zubia Lizarralde



Salvador  
Urizar Villar



Eskerrik asko denoi eta ondo pasatu!  
Zorionak

**Elkartasun azoka**  
PREMIAZKO PRODUKTUAK BILTZEKO KANPAINA

ULMA Taldeak, "ACOES" elkartearekin lan-kidetzan, **lehen mailako produktuak biltzeko kanpaina abiarazi du, Hondurasen baztertua dauden herritarren oinarrizko premiak asetzeko.**

**Zer behar da?:** Elikagai ez galkorrak (pasta, arroza, azukrea, olio, kontserbak, etab.) eta **higieneko gaiak** (konpresak, etab.). Horretaz gain, umeentzako materiala ere oso lagungarria izango da (eskolako materiala, arropa, jostailuak, etab.).

**Materiala uzteko lekua:** ULMA Taldeko Zerbitzu Zentralak, Garagaltza auzoa 51, Oñati.

**Azken eguna:** 2014ko abenduaren 19a.  
**Ordutegia:** 08:30-13:00 eta 14:00-17:30

Premiazko produktuen bilketa honetan parte hartzen duten bazkide eta langileen artean kuadro bat zozketatuko da.

Fundazioa  
**ULMA**

ANIMATU ETA BIDALI ZURE IDEIAK;  
Beti bezala, Iradokizunetarako Postontzia ere erabili dezakezu zure ideiak eta iritziak bidaltzeko.

ULMA Taldea. Departamendu Zentralak.  
Garagaltza auzoa 51 - 22 p.k.  
20560 OÑATI (Gipuzkoa)  
Erref. Begira.  
Helbide elektronikoa: [begira@ulma.com](mailto:begira@ulma.com)

# IX. Argazki Lehiaketa

# KOLOREAK



Parte hartu eta irabazi  
"EUSKOLABEL" GABONETAKO SASKIA



ULMA Taldeko bazkide eta langileei zuzendutako Argazki Lehiaketaren IX. edizio honetan, "KOLOREAK" gaiarekin zerikusia duten zuen argazkirik onenak bidaltzera animatzen zaituztegu.

Hamabi argazkirik onenek ULMAko 2015eko egutegi korporatiboa osatuko dute. Gainera, parte hartzaile guztien artean "Euskolabel" Gabonetako Saskia zozketatuko dugu.

Argazkiak 2014ko abenduaren 17ra arte bidali ahal izango dira, emaillez: [argazkilehiaketa@ulma.com](mailto:argazkilehiaketa@ulma.com) helbidera edo [www.begira.ulma.com](http://www.begira.ulma.com) gunetik.

Lehiaketa honetan langile bakoitzak gehienez 6 argazki bidali ahal izango ditu eta horietatik bat bakarrik aukeratu ahal izango da egutegi korporatiborako.